

Itziar Nazabalen margolanak nazioarteko arte azokan

Salzburgeko

Austriako Salzburg hirian udaro egiten diren jaialdi entzute-tsuak igandean hasi ziren. Opera, drama produkzio eta kon-zertu eskaintza zabala izaten da urteroudagarria. Gainera, aurtentzen, Mozart urtea izendatua dute. Izan ere, Wolfgang Amadeus musikariaren jaiotzaren 250. urterreia ospatzen ari dira eta bere jaioterria, Salzburgen ospakizun handiak egiten ari dira.

Hori guztia ezagutzeko aukera izaten du Itziar Nazabalek, agorilaren 12tik 16ra Austriako hirian izanen baita. Salzburgeko jaialdiek duten erakarpenean gaitasunaz baliatuta urteak dira garai berean Art Salzburg izeneko nazioarteko arte azoka egiten dela. Aurten azoka agorilaren 12tik 15era egingen da. Han mundu guztiko 30 galeriatik gora izanen dira, haien artisten lanak erakusten eta saltzen. Antolakuntzak hautatutako galerien artean da Madrug Gaudi Galeria eta harén bidez izanen dira margolari altasuarraren lanak ikusgai.

Hautatua

Itziar Nazabalek bere lanak interneteko bi galerietan zituen ikusgai (www.freeartweb.com eta www.artehoy.com). Gehiagotan ere izan zitzakeen, baina ez du betarik margolanei argazkiak egin eta haietara bidaltzeko. Altsasuarra buru belarri ari baita bere tailerrean, Bakaikun eta Ziordian margo eskolak ematen. Aipatutako web orriotako margolanak izan ziren Austriako atek zabaldu zizkietenak.

Behin e-posta begiratzen ari zela Madrug Gaudi galeriaren mezuajaso zuen. Galeria arduradunek adierazi zioten bere lana ikusizutelaetagehitu: *"lan interesgarria da estetika eta kalitateagatik. Eta merkatuan (estatua eta Europa) sarbidea du."* Horrekin batera margolanak Salzburgeko arte azokara eramateko eskaintza egin zioten.

Itziar ezin sinetsi zegoen, itzal handiko galeria baitamardildarra.

"Ametsbaf da" adierazi digu altsasuarra. Gainera, dirudienek, galeriak Itziarrekiko azaldutako interesa ez da azoka horretara mugatuko. Galeria bere Madrug Gaudi egoitzan egingen duen erakusketa kolékti bo batean parte hartuko du aurtentzen Itziarrek eta bere lanak etorkizunean beste arte azoka batzuetan presente egon daitezkeela adierazi diote galeriatik.

Austriarantz

Salzburgeko arte azokan ezin da edozein galeria egon. Antolakuntzak aukeratutakoak bakarrik joaten dira. Haiekin egin duten moduan, Gaudi Galeria berak mundu guztiko 20 artisten lanak aukeratu eta haiek eramanen ditu Salzburgeko. Margolari altasuarrak adierazi digunez, *"aukera izatea bakarrik, jada garrantzitsua da."*

Itziarrek galeriarekin kontratu sinatu du eta hari ordaindu behar izan dio Austriara margolanak eraman ahal izateko. Kon-tuak handik bueltan egingen badituzte, saldutakoaren % kopuru bat galeriarendako izanen da. Salzburgen 5 metro lineal izanen ditu altsasuarra bere margolanak erakusteko.

Galeriaren eskuetan dira dagoeneko lanak. 10 dira, baina 6 besterik ez dira erakutsiko. Salduz gero beste batekin beteko lukete hutsunea. Salzburgeko arte azokak irauten duen 4 egunetan 30.000 kolezionista pasatzea espero da. Gainera, gehienak arte erosleak dira. 11:00etatik 20:00etara izanen da azoka zabalik, (azken egunean 18:00etaraino).

Margolanak

Akuarelak dira Itziar Nazabalek erakutsiko dituenak. Galeria eta margolariak berak egin dute hautaketa. Tamaina erdixikiak dira (42x36 cm). Haien artean daude Kordobako egonaldietako serieko batzuk hiri-ko karrikak eta txokoak irudikatzen dituztenak, bere tailerrean egindako Portugaleteko



Itziar Nazabal lortian egindako erakusketan.

Agorilaren 12tik 15era 30.000 kolezionista pasako dira Art Salzburg nazioarteko azokatik

bat, Ingalaterran egindako arabiar paisai bat eta Llanako egonaldian egindako serieko lan batzuk, haietan txalupak eta herriko plaza ikus daitezke.

keta batera aurkeztu zuen. Ez zuen ezer irabazi eta bueltatzen diotenerako berandu izanen da. Itziarrek estilo ezberdinak lantzen ditu, haiek ikasteko prozesu baten moduan ikusten dituelako eta margolari bezala trebatzeko baliagarriak zaizkielako. Abstraktuak, inpresionismoa, errealismoa... estilo ezberdinak maite ditu.

Itziarren balorazioa

Itziar *"ametsetan bezala"* dago. Ezin sinetsi aukera bat izan zezakeenik. *"Nazioarteko azoka batean parte hartzea gauza handia da eta pozik nago."* Galeria auke-ratzea eta bere artista bihurtzea *"zirkuituan sartzea"* dela adierazi digu margolariak. *"Pausu ona da. Gainera, ni joan gabe. Kali-tateko galeria da eta nire lanari zertifikazio moduko bat ematen diote."* Bere lanarendako errekonozimendua dela azaldu digu eta,aldi berean, aitortu *"horrek biziaren" duela. "Betidanikoa da, haren daramadana. Betidanik margo izan dut. Zale-tasun eta lan bera dut, margoa. Ongipasatzen dut."*

Ziordia, Bakaiku, Iturmendi, Iruña, Ingalaterra eta Altsasun esposatu ondoren etorri zaio aukera.

Collurera

Itziar Nazabal eta beste bi lagun egun hauetan Frantziako Collure herrian daude, margoetan. Horretara Joan baitira artista eta poeten destinoa izan den herri hartara. Aste bat emanen dute han, *"nahi dudana margoa."* Azaldu digunez *"kalean margo zuzena edo azkarra egitea zailagoa da. Ziurtasuna eta azkartasuna eskatzen du. Ona da burua hobetzeko eta trebatzeko. Kordoban eta Llanan ere hala aritu nintzen."*

Kurtsuan zehar egin ezin dituen enkargoak udan egiten ditu. Baina Austriako denbora gutxia go utzi dio horretarako ere.

Kordoba eta Llanako margolanak José Martínez Lozano akua-relista-irakaslearentailerrean egin zituen. Harengandik asko ikasi zuela aitortu digu Itziarrek. Azaldu digunez, *"asko eskatzen zidan. Harekin ikasitakoak da neurri batean azokakoa."* Ez du harén eragin nabarmenaukatzen, *"teknikabixia zuelako."*

Akuarelez gain, olio lan bat ere eraman nahi zuten galeriakoei, nahiz eta haien arabera estiloak nahastea ez komeni. Baina lehia-